

BIZI izatetik BIZIKIDE izatera

19. saioa

ZEHAZPENAK

Saio Honetan, multzo berriari hasiera emango diogu. Gure bizileku den munduari begiratzea da helburua eta, horrezaz gainera, Jainkoak amestu duen munduaren antz handiagoa izan dezan zer egin dezakegun galdetu nahi diogu geure buruari. Saioan, gizarteko partaide izatearen kontzientzia sendotu egingo dugu, "gizarte izakiak" garela, ez zaigula bakartuta bizitzea komeni eta gure bizimoduarekin gizatasun eta senidetasun gehiagoko gizartea egiten lagundu dezakegula berretsiz.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Bizikidetzeta, gizartea eraikitzeko lagungarri diren eta kaltegarri diren jarrerez jabetu
- Ebanjelioak maitasunean oinarritutako bizikidetasuna lantzeko dei egiten digula konturatu
- Seme-alabei bizikidetasunean eta gizartekoitasunean hezteko transmititzen dizkiedan balioak antzeman

Haurrak:

- Bizitzeko eta zorioneko izateko besteak (familia, adiskideak,...) ezinbesteko ditugula konturatu
- "Adiskide onaren" ezaugarriez jabetu
- Jesusek adiskide on izaten irakasten digula antzeman

GARAPENA

Saioari hasiera emateko, heldu eta haur, elkarrekin dinamika bat egingo dugu. Bi aukera daude eta taldeko eragileak erabakiko du taldearentzat egokiena zein den.

1. "Uztai-jokoa": Psikomotrizitateko uztai handi eta ertainak lurzoruan ipini sakabanatuta lokalean zehar (edo lurzoruan klarionaz marratzu hainbat neurritako zirkuluak); hasieran, taldekide guztiek izango dute zirkulu edo uztai bana bertan sartzeko. Musika alaia jarri eta hara eta hona ibiliko dira guztiak lokalean, salto eta dantza. Musika isiltzeaz batera, taldekide bakoitza zirkulu batean sartuko da. Musika berriz jarri orduko, eragileak uztai bat (edo hainbat) kendu egingo du eta musika kentzean partaideek elkartu egingo dira kanpoan ez geratzeko; ezin da inor

uztaietatik kanpo geratu. Elkarri laguntzean, uztaiaren barruan lekua egitean datza jokia, horrela inor kanpoan gera ez dadin. Eragileak uztai gehiago ezin dela kendu uste duenean amaituko da jokia.

Jokia amaitu ondoren, elkarrizketan jardungo dute bizi izandakoaren inguruan, ondorengo galderak edo antzerakoak kontuan hartuta:

- Nola sentitu gara jokoan?
 - Zer egin behar izan dugu uztaietan denok lekua izateko?
 - Zer da dibertigarriagoa, denok jokoan irautea ala, uztaietatik kanpo gelditzen direnak jokotik kanpo utzita?
 - Ikastetxean, adiskideekin, beste batzuekin, gizartean... gaudenean, zer egin behar dugu denok lekua izan dezagun eta inor kanpoan gera ez dadin?
 - Nola gaude hobeto, alaiago, zoriontsuago,... bakarrik gaudenean eta gauzak bakarka egiten ditugunean ala beste batzuekin gaudenean?
2. "Armiarma": Taldea zirkuluan ipiniko da lokal osoa hartuz. Eragileak artile-harila izango du eskuetan. Haril-muturrari heldu eta partaide bati jaurtiko dio, bere izena esan eta beste batzuekin batera egitea gustuko duenez galdera eginez. Jaso duenak artileari oratu eta harila beste norbaiti jaurtiko dio, keinu bera errepikatuz. Gauza bera egingo a, taldekide guztiak artilearen bidez elkarri lotuta egon arte. Orduan, eragileak emaitzaz jabetzeko esango die taldekideei. Denok batzen gaituen sarea, armiarma osatu da. Irudian arreta jarri eta solasean jardun:
- Bizitzan, horrela ote gaude, hau da elkarri lotuta? Adibideak jarri
 - Besteengandik bananduta bizi gaitetzke?
 - Ikastetxean, adiskideekin, beste batzuekin, gizartean... gaudenean, zer egin behar dugu denok lekua izan dezagun eta inor kanpoan gera ez dadin?
 - Nola gaude hobeto, alaiago, zoriontsuago,... bakarrik gaudenean eta gauzak bakarka egiten ditugunean ala beste batzuekin gaudenean?

Haurrak eta helduak banatu egingo dira saioari jarraipena emateko.

HELDUAK

Bideo hau ikus dezakete: <http://www.youtube.com/embed/nwAYpLVyeFU>

Eta, ostean, elkarrizketa/hausnarketan jardun zer nolako gizartea eraiki eta seme-alabei zer nolako hezkuntza eman nahi diegun aztertuz, hauek bizikidetzan eta gizartekoitasunean haz daitezten. Ondorengo galderok lagungarri izan daitezke elkarrizketari ekiteko:

- Zer diotsu ikusi berri dugun bideoak?
- Zeintzuk ote dira gure gizartearen euskarri eta oinarri diren balioak? Bat zatoz horiekin ala aldatu eginko zenituzke?
- Nolako gizartea nahiko zenuke zure seme eta alabentzat?

- Zer hezi eta zaindu behar dogu gure seme eta alabengan lagunarteko izan eta "gizarte bizikidetzaz sanoan" haz daitezen?

HAURRAK

Adiskidetasunari buruzko ipuina entzungo dugu, hain zuzen ere, Beatriz Montero ipuin-kontalariaren *Los buenos amigos*: <https://www.youtube.com/watch?v=oRIWuillqw> Ondoren, elkarrizketan jardungo dugu haurrekin. Zer iruditu zaie? Zer gustatu zaie gehien? Zer egiten dute adiskide zintzoek?

Ondoren, denen artean "adiskide onaren" marrazkia egitea proposatuko diegu. Horretarako, zatar-papera jarriko dugu lurzoruan, haur bat gainean etzan eta silueta marraztuz. Ondoren, marrazkia osatuz joango gara, adiskide onari egozten dizkiogun ezaugarriak gehituz. Beharrezkoa izanez gero, eragileak ideiak eman ditzake: denak, eta bereziki mindutakoa, ferekatzen dituzten eskuak; barre egiten duen eta musukatzen duen ahoa; besarkatzen duten besoak; lagun egiteko, bidelagun izateko oinak; denak maitatzeko bihotza... Haurrek marraz eta margo dezatela, murala osatu arte.

AZKEN UNEA DENAK BATERA

Saioari amaiera emateko, berriz elkartuko dira haur eta heldu. Haurrek marrazkia erakutsi eta azalduko diete.

Eragileak galdetu egingo du: "Eta, zer diosku Jesusek honi buruz? Zer proposatzen digu adiskide izateko?"

Lukas 6, 31-36 eta Kolosarrei 3, 12-16 txatalak irakurri eta taldean komentatu:

- Nolako hartu-emana izateko diosku Jesusek?
- Beste batzuekin gaudenean, zertan nabaritzen da Jesusen adiskide garena?
- Batzuetan, kostatu egiten zaigu, Jesusek proposatzen digun bezala, denen adiskide izatea?

Entzun eta bizi dugunaren sinbolo eta adierazpen erara, katea osatuko dugu. Katea, batasunaren sinboloa da: kate-maila bakoitza ezinbestekoa da katea osatzeko baina, aldi berean, kate-maila bakoitzak ezinbesteko ditu gainerakoak, batek bakarrik ezin duelako ezer egin. Partaide bakoitzari koloretako paper-zerrenda bat eman eta idatz dezala bertan bere izena eta izan nahi duen adiskide onaren ezaugarri bat (haurrei helduek lagunduko diete beren izena eta hitz bat idazten edo marrazki bat egiten). Idatzi ondoren, paper-zerrendak lotu, elkarren artean uztartuz. Horrela, denen artean, katea osatuko dute.

Katea egin ondoren, eragileak hausnarketa egingo du: taldekide guztiok bat eginik gaude eta Jesus da batzen gaituena. Horregatik, amaitu aurretik, eskerrak emango dizkiogu

hainbat laguni lotuta gaudelako. Katea lokalean utz dezakegu hurrengo batzarretarako, taldearen sinbolo bezala.

ETXEAN – FAMILIAN JARRAITZEKO

Hona hemen jarduera hau, saioan bizi izan dugun esperientziari familian jarraipena emateko.

Hurrek entzun duten ipuinaren bideoa eskuragarri jarriko diegu gurasoei. Familian berriz entzun ondoren, azal dezatela ipuinak zer esan nahi duen. Horren inguruan elkarrizketan jardun.

Gainera, “eginkizun” hau proposatuko diegu: familiei marrazki bana emango diegu zuri-beltzez etxean begi-bistan jar dezaten (2. saiorako baliabideetan, ariketa honetarako baliagarri izan daitezkeen mandalak jasotzen dira). Familiako norbaitek, heldu nahiz haur, besteen alde zerbait egiten duenean, marrazkiaren zati bat koloreztatuko du eta zer egin duen azalduko die gainerakoei. Esate baterako, laguntasunezko, eskuzabaltasunezko, maitasunezko zeinuren bat egiten dugunean, munduari kolorea ematen diogu, mundu politagoa eta alaiagoa egiten dugu guztiontzat, Jesusek eskatzen digun bezala.